

# AGARREGOIKUA



Nere barnean ibiltzen ziren gizakiak familia sendoa osatzen zuten. Azkenean haiek maitatzen ikasi nuen, nahiz eta egunero euren garrasi, negar malko edo musuak jasan behar nituen. Ni beraien babesa bilakatu nintzen eta haiek nire lagun.

Familia amonaz, aitonaz, gurasoez eta 2 alabez zegoen osatua. Ni Bergarako Ubera auzoan nengoen, Intxorta mendiaren parean. 1940. Urtean frankistak Bergarara iristean nere barnean babestu ziren, Aranzabaltarrei euren etxea kenduz. Beranduago 1950.ean itzuli zieten etxea. Egun hartatik aurrera etxe zoriontsua bilakatu zen. Familiak bere ondasunak eskuratu zituen egun berean jaio zen Ana, alaba zaharrena. Miraria izan zen hura.

Urteak pasa hala, etxea ustutzen joan zen eta alaitasunak ere nere leihoetatik ihes egin zuen. Utzi gintuen lehena aitona izan zen, hirurogeita hamar urte zituela baserriko lan gogorrenetan jarduten zuen. Gizon isila zen, adimentsua, eta denok geure artean eduki nahiko genukeen gizona. Nik hura ezagutzeko zortea izan nuen. Behin egunero bezala, oilarraren kantuarekin esnatu zen eta atxurrarekin zebilela atzeraka erori, harri baten aurka jo eta betirako utzi gintuen. Hurrengo egunak ilunak izan ziren, meza ondoren eta

hileta-elizkizunaren ondoren, denborak bezala, gonbidatuek etxetik alde egin zuten. Etxekoak euren barruan ezkutatzeko zuten tristura, eta ez nuen amona barrezka inoiz gehiago ikusi.

Aitona eta amona herriko festetan ezagutu ziren. Joxek, ireki zion emakume gazteari atea, eta filmetan bezela lehenengo begiradarekin maitemindu ziren. Berrogeita hamar urtetan bata bestearen babesa izan ziren. Urtebete beranduago, amona gaixotzen hasi zen, azkenean hegan egitea hautatu zuen arte.

Amona emakume lodia zen, alaitasunez betea, beti zuen kontatzeko istorio edo ipuin zahar bat. Bizitza gogorra izan zuen, dirua ez zuten baserri bateko alaba gazteena baitzen. Zortzi urte zituela bere aita mozkorrak etxea apustu batean galdu zuen eta Maritxu txikia ondoko baserrian hasi zen neskame lanetan. Amona itsua zen. Maitasuna zabaltzen zuen hara nora zihoala. Bera zen gehien maitatzera iritsi nintzen persona. Bera eta Mariñe txikia.

Argia zen, aitona bezala, eta amonaren alaitasunarekin jaio zen. Lagunekin egotea zuen gustoko, baita eskolara joatea ere. Gogoan dut behin sari bat eman ziotela adineko neska argiena izateagatik. Saltoka sartu zen etxean. Egun zoragarria izan zen hura, benetan eguzkitsua; txoriek alai abesten zuten eta abereak larrean zeuden eguzkiaz gozatzen. Bizi izan dudana egun alaienetako bat izan zen hura.

Garai haietan aitak azokan egiten zuen lan, herrena baitzen. Milia egiteko garaia iritsi zitzaionean gogor jo zuten ez zelako gai izan hara joateko.

Amak ere azokan lan egiten zuen, bertan solasaldiak izaten zituen herriko beste emakumeekin eta herri guztiak maitatzen zuen. Beti zegoen prest besteei laguntzeko. Hala ere, gau batean azokako barazkiak jasotzen ari zela, lau gizon gerturatu zitzaizkion eta laban batekin mehatxatuz dirua eta zeraman guztia ematera behartu zuten. Horrela aste gogorretako lana galdu zuen. Nahiz eta era guztietako bilaketak egin, inoiz ez zituzten lapurrak harrapatu.

Kixka zuen izena etxeko katuak. Denek zuten gustoko isladatzen zuen lasaitasunarengatik. Katu txikiak marra grisak zituen eta begi argi-argiak. Gauetan, etxekoak gai izaten ziren haren begi liluragarriak ikusteko. Ukuiluan aurkitu zuen Mariñek behin, eta bi egun bakarrik zituela familiako kide bilakatu zen.

Alaba zaharrena berriz herriko festetan postu bat montatu zuen beltz batez maitemindu eta Hego Amerikara ihes egin zuen. Ana eta Rafa ezagutu ziren egun berean maitemindu ziren. Anak amets egitea zuen gustoko, eta bere mutilak nahi izan zuen guztia eskaini zion. Bera izan zen bizirik atera zen Aranzabaltar bakarra.

Gau hartan gertatutakoa bihotzeraino heldu zitzaidan, guztiz suntsitu ninduelako. Apirileko gau hartan ama sutondoan zegoen, artilea lantzen lo hartu ezinik. Aita berriz lo zegoen, etxeko sorgina bezalaxe. Suaren txinpartek egongelako mahaira egin zuten salto eta segundu baten ostean mahaia kixkaltzen zegoen. Ama ez zen hura itzaltzeko gai izan, eta olatu batek bezala, suak ni irentsi ninduen. Nire paretak erretzen hasi ziren, bertan zeuden oroitzapen guztiak suntsituz. Sua egongelatik, logela guztietara joan zen zabaltzen. Gaur hartan entzun nuen azkena oihuak izan ziren.

Eta ordu batzuen ondoren isiltasuna. Ez zegoen zaratarik Uberan, nahiz eta auzotar guztiak sutea ikustera gerturatu. Denek harriturik ikusten zuten, ezin sinetsirik. Inor ez zen gai izan infernu hartatik ihes egiteko. Urte askotan zaintzen eta maitatzen ibili nintzen gizakiak, euren bizitzaren amaierara iritsi ziren. Aranzabaltarrak 200 urtez zaintzen ibili ondoren, nire beldur handiena bete zen. 1701. urtean erosi ninduen Joxeren senide batek urte askotan zehar aurreztutako diruarekin, eta Agarregoikua izenarekin batailatu ninduen. Gaur egun herritarren oroimenean nago, denek dute gogoan 1967.eko apirilaren 27an gertatutakoa. Inoiz ez zuten jakin zehazki nola gertatu zen sutea, ez dute inoiz jakin zergatik ezin izan zuen familiak etxetik irten. Misterio hori Bergararren buruan mantenduko da beti, hala nola, nirean.